

Hori da umorea, maisú!

Mo Yan

Itzulpena: Maialen Marin / Aiora Jaka


Inolako prestakuntza teorikorik ez dudan idazlea naiz, baina oso irudimen emankorra dut, neurri batean Txinako herri-tradizioei esker, eta haiei jarraipena emateko asmoa dut.

Ezjakina izan bide naiz literatur kontzeptu hotsandikoei dagokienez, baina ondotxo dakit istorio liluragarriak ehuntzen, txikitan ikasi bainuen aitonarengandik, amonarengandik eta herriko hainbat eta hainbat ipuin-kontalarirengandik.

Hernani, Udal Liburutegia
2017 abendua

Mo Yan (Shandong, Txina, 1955)

Guan Moye, Mo Yan izengoitiz ezaguna, txinatar idazlea da. Askapenerako Herri Armada sartu zenean ezagutu zuen literatura eta idazteari ekin zion. 2012an Literaturako Nobel Saria eman zioten.



Lanak¹

Eleberriak

- 《红高粱家族》 *Red Sorghum* (1986)
- 《天堂蒜薹之歌》 *The Garlic Ballads* (1988)
- 《十三步》 *Thirteen Steps* (1988)
- 《食草家族》 *The Herbivorous Family* (1993)
- 《酒国》 *The Republic of Wine: A Novel* (1993)
- 《丰乳肥臀》 *Big Breasts & Wide Hips* (1995)
- 《红树林》 *Red Forest* (1999)
- 《檀香刑》 *Sandalwood Death* (2001)
- 《四十一炮》 *Pow!* (2003)
- 《生死疲劳》 *Life and Death Are Wearing Me Out* (2006)
- 《蛙》 *Frog* (2009)

Narrazio bildumak

- 《白狗秋千架》 *White Dog and the Swing* (30 short stories, 1981–1989)
- 《与大师约会》 *Meeting the Masters* (45 short stories, 1990–2005)
- 《欢乐》 *Joy* (8 novellas; six of them are published in English as *Explosions and Other Stories*)
- 《怀抱鲜花的女人》 *The Woman with Flowers* (8 novellas)
- 《师傅越来越幽默》 *Shifu: You'll Do Anything for a Laugh* (9 novellas; one of them, *Change*, is published independently in English)

**Euskaraz: Hori da umorea, maisu! [Itzulpena, Maialen Marin, Aiora Jaka]
Jokin Zaitegi saria 2012**

¹Sarbidea [2017-11-13]: https://en.wikipedia.org/wiki/Mo_Yan

Besteak

- 《会唱歌的墙》 *The Wall Can Sing* (60 essays, 1981–2011)
- 《我们的荆轲》 *Our Jing Ke* (play)
- 《碎语文学》 *Broken Philosophy* (interviews, only available in Chinese)
- 《用耳朵阅读》 *Ears to Read* (speeches, only available in Chinese)
- 《盛典:诺奖之行》 *Grand Ceremony*

Itzultzaileak

Aiora Jaka²

Gasteizko Letren Fakultatean Itzulpengintza eta Interpretazioko lizentzia ikasi zuen lehen promozio hartako ikasleetako bat izan zen Jaka 2000 eta 2004. urteen artean. Geroztik, itzulpenari loturiko bestelako lanbideetan ere aritu izan den arren (euskara eta gaztelania irakasle Ingalaterran, Elhuyar fundazioan hiztezigile, Eskura Itzulpen Zerbitzuetan itzultzaile, basqueliterature.com eta EIZI Eren webguneetan webmaster eta itzultzaile...), unibertsitate-munduari lotuta jarraitu du beti. 2011n Joseba Sarrionandiaren itzulpengintzari buruzko doktore-tesia bukatu zuenetik, Euskal Herriko Unibertsitatean dihardu lanean, itzulpengintza arloko ikasgaiak irakasten.

Literatur itzulpenean ere aritua da, bereziki haur eta gazte literaturako liburuak itzultzen. 2011n Haur Literaturako Vitoria-Gasteiz saria jaso zuen Janosch alemanaren *Esan, ama, nork egiten ditu umeak?* liburuaren itzulpenagatik, eta 2013an, berriz, Jokin Zaitegi beka irabazi zuen Maialen Marin itzultzailearekin batera Mo Yan idazle txinatarraren *Hori da umorea, maisu!* obra euskaratzeko.

Senez aldizkarian argitaratuak ditu zenbait artikulu, baita Euskal Herriko nahiz nazioarteko beste aldizkari batzuetan ere. *31eskutik* blogean ere parte hartu izan du.

² Sarbidea [2017-11-13]: <http://nordanor.eus/nor?id=225>

Maialen Marin³

Itzultzaile donostiarra, bertatik kanpo bizitzen luze daraman arren. Itzulpengintza eta interpretazioko ikasketak egin zituen Bartzelonako UABen (Universitat Autònoma de Barcelona), eta masterra eta doktore-tesia, ondoren, Parisko INALCOen (Institut National des Langues et Civilisations Orientales). Dena dela, gurean ziurrenik ezagunagoa da Mo Yan Nobel saridunaren ipuin-bilduma bat itzuli berri duelako, Aiora Jakarekin batera: Hori da umorea, maisu!

Itzultzaileak mintzo [Elkarrizketa]

Txinera urrutiko hizkuntza dugu, bai geografikoki bai hizkuntzalaritzaren aldetik ere. Zer berezitasun edo arazo sortzen ditu beren-beregi txineratik itzultzeak?

Txineratik itzultzerakoan badaude zailtasun batzuk agian beste hizkuntza batzuetatik itzultzerakoan ez daudenak, adibidez, aditz-denboren kontua. Txineraz ez daude aditz-denborak guk ezagutzen ditugun bezala. Badaude aspektua markatzeko partikula batzuk, ekintza burutua den ala ez adierazteko, baina batzuetan baduzu pasarte bat lasai-lasai itzul dezakezuna lehenaldian edo orainaldian, zuk nahi duzun bezala, eta hor zure esku dago, zuk erabaki behar duzu. Agian indar gehiago eman nahi diozu pasarte bati eta orainaldian jarri nahi duzu, baina gero konturatzen zara ez datorrela bat hurrengo pasartearekin.

Leku-izenena ere bada beste zailtasun bat, batzuetan karga semantikoa baitute, euskaraz ere gertatzen zaigun bezala. Mo Yanen itzulpenean ere agertzen da, eta guk kasu horretan erabaki duguna izan da lekua existitzen bazen txineraz uztea. Baina, batzuetan autoreak asmatzen ditu tokiak: hor dago Urgazizulo herria, Urbeltz herria... Horiek itzuli egin ditugu. Abizenek ere askotan esanahia dute, euskaraz bezala. Guk normalean egin duguna izan da ezizen bat-edo zenean itzuli, eta, aldiz, abizen arrunt bat zenean, txinatarrentzat ere esanahia galdua duenean, bada txineraz utzi.


³ Sarbidea [2017-11-13]: <https://elearazi.wordpress.com/2013/11/26/itzultzaileak-mintzo-maialen-marin-lacarta/>

Gero, onomatopeia asko daude. Hori orokorrean Txinako literatura garaikidean gertatzen da. Noski, itzultzaile gisa hainbat erabaki har ditzakezu. Zenbait itzultzailek onomatopeia-kopurua gutxiagotzen dute. Beste erabaki bat izan daiteke euskaraz erabiltzen den onomatopeia bat jartzea, edo, bestela, txinerakoa erabiltzea edo txinerakoa imitatzen saiatzea.

(...) Tratamenduak ere bereziak dira, Mo Yanen liburuan azaltzen dira Anaia Txiki, Osaba Handi eta horrelakoak. Osaba deitzea errespetu-marka bat da, baina ez du esan nahi pertsona hori zure osaba denik, baizik eta pertsona zaharrago bat...

Hori da umorea, maisu!

Gizakiaren grinak eta ergelkeriak erakusten dituzte Mo Yanen istorioek, ironiaz, samurtasunez eta gordinkeriaz. Gosea eta behar gorria zer diren dakien eta inoiz ahazten ez duenaren begiradaz aztertzen ditu bere herrialdearen historia eta gaur egungo kontraesanak, on-gaiztoak bereizten ez dituen modu bortitz eta ederrean.



Tradizioa eta modernitatea elkartzen ditu Mo Yanek, Txinako ondarea eta mendebaldeko idazleen irakurketa. Oinarri errealista dute haren kontakizunek, magiaren eta umore beltzaren ukituekin ziprztindua. Kritiko agertzen da bere sorterriko gaitzekin, baina giza makurkeria ulertzen dakienaren enpatiaz.

Kritikak⁴

Izotza eta sua

Amaia Alvarez Uria

(...) Liburu honetako ipuinetan Txinako historiako zatiak aurkituko dituzu fikziora ekarriak, nekazari, langile eta haurren begietatik ikusi ahal izango duzu mundua, errealitatetik eta fantasiatik ibiliko da narrazioa eta legendek eta mitologiak espirituak eta magia ekarriko dituzte orriotara. Lehen, bigarren eta hirugarren pertsonetan kontatuko zaizkigu istoriook, umorez eta amaiera iradokorrez.

Egileari kasu egiten badiogu ez gara azaleko irakurketarekin konforme geratuko, beste esanahi batzuk bilatzen ahaleginduko gara hitzen atzeko mezuak bilatuz eta asmatuz. Oroz gain gustatu zaidana, ohiko irakurketetan gutxitan topatzen dudalako agian, zentzumenekin lotutako metaforak, animalia eta naturarekin lotutako konparazioak edo egunerokotasuneko xehetasunekin eta emozioekin lotutako irudiak izan direla.

Argia, 2014-04-20

⁴ Osorik irakurtzeko [2017-11-13]: <http://ekarriak.armiarma.eus/?i=1100>

Gosearen idazle

Iker Zaldúa

Mo Yani fantasia hutsa irudituko zitzaiokeen, soldaduskan zegoela idazten hasi zenean noizbait Literaturako Nobel saria jasoko zuela esan izan baliote. Gosea ongi ezagututako haur eta gaztetxoak izan zen, Txinan tripa-zorrien soinua eguneroko ogia zen garaian landa-eremuko haurra. Horrenbestez, idazten hastearren arrazoiak sari potoloen ametsetatik aparte bilatu behar dugu, berak aitortu zuenez.

(...) Haatik, idazle izateko eta hori ogibide bihurtu ahal izateko, abilezia behar da, trebetasuna behar da. Mo Yanek badauka zer kontak eta badu ongi kontatzeko abilezia, errealitate gordina umorez azaltzeko adinakoa, absurduarekin jokatzeko adinakoa. Hain zuzen, absurduaren trataera dela medio, Kafkarekin alderatu izan dute sarritan.

Egiaz, egoera absurduak aurkezten ditu, baina atzean berak ezagutu zuen landa-eremuko Txina hori salatzen grina agertzen da indarrez, 60ko hamarkadako garai "arraro eta fanatikoa". Hitz egin nahi izan du Mo Yanek, egia esateko premia zegoela iritzita.

(...) Liburuak Jokin Zaitegi Itzulpen Saria eskuratu zuen 2012an eta beste behin itzultzaileen lan itzela azpimarratu nahi dut horren harira. Horrenbeste gustatu zaidan esaldi bat ekarriko dut horretarako: beste aldean itzultzailea dago.

Gara, 2014-03-16

Idazle gosetia

Hasier Rekondo

(...) Txinatik kanpo hiru eleberrik egin dute ospetsu Mo Yanen literatura: *Basarto gorriaren klana* (1987an Zhan Yimouk oihartzun handiz film bihurtu zuena), *Paradisuko baratxuriaren baladak* eta *Alkoholaren herria*. Idazle bereziki oparoa den Mo Yanen hitzetan, "hiru liburu hauek oso ezberdinak diruditen arren, sakon-sakoenean berdinak dira: gosearen beldur den ume batek bizitza on bat izateko duen grina erakusten dute". Gosea eta grina, narratzeko grina, literaturaren oinarri gisa. Mo Yanek erakusten duen narratzeko grina parekiazina da mundu mailako literaturan.

XX. mendeko 80ko hamarkadan ekin zion idazteari Mo Yan-ek, ordurako biziak zituen arestian aipaturako haurtzaroko gosea eta 60ko hamarkadan Txinak jasan zuen Iraultza Kulturala.

Maialen Marin Lacartak eta Aiora Jaka Irizarrek ederto baino hobeto itzultitako Hori da umorea, maisu! (Elkar, 2013) narrazio laburren liburu honek Jokin Zaitegi Itzulpen Saria eskuratu zuen 2012an; horri esker dastatu izan ahal dugu, irakurle gosetiok, sistema politikoak inposaturako burokrazia absurdoen gainetik Mo Yanen pertsonaiek bizirik irauteko erakusten duten umorea, bizitzeko gogoia eta bizitzaren gordinkeria absurdoa. Gabriel Garcia Marquezen itzala luzea da Mo Yanen literaturan, baina bere bide propioak ibili ditu, eta esango nuke errealismo magikotik aldentzen denean ematen duela bere onena...

Kafkaren eragina ere nabarmendu nahi izan da Mo Yanen literaturan, baina burokraziaren absurdoa bestelako moldez aurkezten da txinatarraren luman. Absurdoa zehatzagoa da, materializatu egiten da, usaindu egin dezakegu. Ez du nihilismo punturik. Oraindik orain sistema komunistarengan fedea erakustearen ondorioz, kritika latzak jasan ditu.

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean

- Mo, Yan (1955-)** 4 Itzuli
[Las baladas del ajo / Mo Yan ; traducción de Carlos Ossés \(2008\)](#)
Argitaratzailea: Madrid : Kailas, [2008]
- Mo, Yan (1955-)** 4 Itzuli
[Cambios / Mo Yan ; traducción del chino por Anne-Hélène Suárez Girard \(2012\)](#)
Argitaratzailea: Barcelona : Seix Barral, 2012
- Mo, Yan (1955-)** 4 Itzuli
[Grandes pechos, amplias caderas / Mo Yan ; traducción de Mariano Peyrou \(2007\)](#)
Argitaratzailea: Madrid : Kailas, [2007]
- Mo, Yan (1955-)** 4 Itzuli
[Hori da umorea, maisu! / Mo Yan ; \[itzultzaileak, Maialen Marin Lacarta, Aiora Jaka Irizar\] \(2013\)](#)
Argitaratzailea: Donostia : Elkar, 2013
- Mo, Yan (1955-)** 4 Itzuli
[El manglar = \(Hong shulin\) / Mo Yan ; traducción del chino de Blas Piñero Martínez \(2016\)](#)
Argitaratzailea: Madrid : Kailas, 2016
- Mo, Yan (1955-)** 4 Itzuli
[El mapa del tesoro escondido = \(Cangbao tu\) / Mo Yan ; traducción del chino de Blas Piñero Martínez \(2017\)](#)
Argitaratzailea: Madrid : Kailas, D.L. 2017
- Mo, Yan (1955-)** 4 Itzuli
[Rana / Mo Yan ; traducido del chino por Yifan Li ; editado por Cora Piedra \(2011\)](#)
Argitaratzailea: Madrid : Kailas, 2011
- Mo, Yan (1955-)** 4 Itzuli
[Red sorghum / Mo Yan \(2003\)](#)
Argitaratzailea: London : Arrow books, 2003
- Mo, Yan (1955-)** 4 Itzuli
[La República del vino / Mo Yan ; traducción de Cora Tiedra \(2010\)](#)
Argitaratzailea: Madrid : Kailas, 2010
- Mo, Yan (1955-)** 4 Itzuli
[Shifu, harías cualquier cosa por divertirme / Mo Yan ; traducción de Cora Tiedra \(2012\)](#)
Argitaratzailea: Madrid : Kailas, 2012
- Mo, Yan (1955-)** 4 Itzuli
[Sorgo rojo / Mo Yan ; traducción de Ana Poljak \(2012\)](#)
Argitaratzailea: Barcelona : El Aleph, 2012
- Mo, Yan (1955-)** 4 Itzuli
[El suplicio del aroma de sándalo / Mo Yan ; traducción del chino de Blas Piñero Martínez \(2014\)](#)
Argitaratzailea: Madrid : Kailas, 2014
- Mo, Yan (1955-)** 4 Itzuli
[Trece pasos / Mo Yan ; traducido del chino por Juan José Ciruela Alférez \(2015\)](#)
Argitaratzailea: Madrid : Kailas, D.L. 2015
- Mo, Yan (1955-)** 4 Itzuli
[La vida y la muerte me están desgastando / Mo Yan ; traducción de Carlos Ossés \(2009\)](#)
Argitaratzailea: Madrid : Kailas, 2009
- Mo, Yan** 4 Itzuli
[Boom! = Sishiyi pao / Mo Yan ; traucido del chino por Yifan Li ; editado por Cora Tiedra \(2013\)](#)
Argitaratzailea: Madrid : Kailas, 2013
- Mo, Yan** 4 Itzuli
[Feng ru fei tun / Mo Yan \(2003\)](#)
Argitaratzailea: Beijing : Zhongguo Gong Ren, 2003
- Mo, Yan** 8 Itzuli
[Hong gao liang jia zu / Mo Yan \(2004\)](#)
Argitaratzailea: Beijing : Dang Dai Shi Jie, 2004